FRANTZISKOTARRAK 500 URTE OÑATIKO ARANTZAZUN:

Euskaltzaindiari agurra

Oñati, Arantzazu, 2002-VII-18

Telesforo Zuriarrain,
Arantzazuko Komentuko Guardianoa

Eukaltzaindiko kide eta adiskide agurgarriok:

Ongi etorririk beroena guztioi; eta baita ere gure esker ona agertu nahi dizuet zuen ohizko batzarra hemen, Arantzazun, egitea erabaki duzuelako. Eta nola ez, frantziskotarron omenez ekitaldi hau antolatu duzuelako. Denon izenean esaten dizuet, gustura gaudela zuek hemen ikustearekin eta ohore haundia dela guretzako zuen presentzia. Ongi etorri honetan, aipamen berezia egiten diet Miren Azkarate, Euko Jaularitzako Kultura Sailburu adiskideari, eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunari. Eskerrik asko bihotzez, etortzeagatik eta ekitaldi hau prestatzeagatik.

Arantzazuko Praileon Bosgarren Mendeurrenean ekitaldi asko eta anitzak izan ditugu. Baina guztien artean, atsegin eta adierazgarrienetako bat Euskaltzaindiaren batzar hau da. Guretzako ezin zitekeen aurtengo antolamenduan, Euskaltzaindiaren batzarra hemendik kanpo utzi. Eta zuek pozez onartu duzuela jakitea, esanguratsua egiten zaigu. Izan ere Euskaltzaindiarengandik hurbil sentitu gara beti, Aita Villasante bizi zenean batez ere. Hileroko azken ostiraletan hutsik egin gabe joaten zen zuen bileretara. Eta bezperatik txintxo asko etorriko zen Aita Guardianorengana, batzarrera joateko baimena eskatzera. Azken urteetan egun hori zaintzen ibiltzen zen, pasatuko ote zitzaion kezkarekin. Eta tarteka galdetzen zigun: «azken ostirala pasatu al zen»?

Aita Villasanteren lan saiatu eta aspergabe horretan, Arantzazuko Praileon ahalegina eta presentzia ere han zegoen. Eta guk oso hurbiletik bizi izan ditugu Euskaltzaindiaren asmoak eta kezkak. Horregatik oso familiako sentitu zaituztegu batez ere Aita Villasanteren garaian. Baina bestetik ezin ahaztu Arantzazuk Euskaltzaindiarekin izan dituen harremanak aurreagokoak direla. Ia berrogeita sei urte bete dira Euuskaltzaindiak bere Bilera nagusietako bat hemen egin zuenetik. Basilika berria eraiki berria zelarik eta hori ospatzeko burutu zen urte berezi hartan, hemen ospatu zuen Eskaltzaindiak bere bilera.

Euskaltzaindiaren beste batzar gehiago ere izen ziren Arantzazun, baina onenean hirurogeita zortzikoa azpimarratu beharko genuke. Euskera batuaren inguruko batzar garrantzitsuaren aztarnak gogartetxe honetan itsatsiak geratu ziren. Euskera batuaren lehenengo batzorde hari begiratzen badiogu, Arantzazuko Praile bat baino gehiago agertzen dira argazki hartan: Aita Luis Villasante, noski, Imanol Berriatua zena eta Joseba Intxausti. Arantzazuk oso barrutik bizi izan zuen euskara batuaren gatazka eta lorpena. Gerora, Aita Luis Villasante, euskaltzainburu zelarik, euskeraren batasun-bideak sortu zizkion sufrimentuetan parte izan genuen.

Baina, bada aipatu beharreko beste gertaera bat ere. Arantzazuko Andre Maria, Gipuzkoako Zaindari izendatu zenean, 1918ko irailean. Festa haundiak antolatu ziren. Eta Oñatin ospatu zen Euskal Ikasketen lehen Kongresua. Bertan parte hartu zuen gure Aita Joxe Arruek ere, Arantzazuko Musika Kaperaz eta musikalariez hitz eginik. Gogoratzekoak dira Kongresuari amaiera emateko Alfonso XIII.ren Erregeak esandako hitzat:

> «Quiero que el primer aplauso que reciba esta sociedad naciente (Eusko Ikaskuntzak, alegia) sea el mío, como quiero ser el primero que se inscriba entre sus fundadores... Cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable Euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad... Estudiad vuestra historia... mejorad vuestros campos, acrecentad vuestras industrias, dilatad vuestro comercio... tonificad cada vez más vuestro vigoroso carácter. Para tan nobles fines, pedid los auxilios al cielo, ante la bendita patrona de Guipúzcoa, la Santísima Virgen de Arantzazu».

Data labur hauek ondo adierazten dute, Arantzazuk Euskaltzaindiarekin izan dituen harremanak luzeak eta sakonak izan direla. Arantzazuk betidanik izandu konpromiso sakona euskerarekiko, eta aurrerantzean ere, gure indarren arabera, hala izango du. Gure hizkuntza maite dugulako eta hona datorren jendea, gehienbat, euskalduna delako.

Gure esker ona, zuen presentziaz Arantzazuko Praileon V. Mendeurrenari ohore egiten diozuelako. Eskerrik asko Arantzazu zuen lan lekutzat aukeratu duzuelako. Ongi etorriak denok, eta zuen lana probetxuzkoa gerta dakigula guztioi. Eskerrik asko bihotzez.